



ASTOA IKUSI NUEN



Bertsoaren berri

Sortak azaltzen du nola ikasle batek lagun egiten duen asto hiztun bat, betaurreko eta gabardinaduna. Ikastolara gonbidatzen du eta astoa gelara datorrenean bizitako pasadizoak kontatzen ditu.

Doinuaren berri

“Hitz egin zionian” doinu herrikoia R.M. Azkuek eta Aita Donostiak jaso zuten. Imanol Urbietta musikariak egokitu egin zuen doinua eta “Astoa ikusi nuen betaurrekoekin” hasten den bertso sorta Joxean Ormazabalek egin zuen (1948-2010 Zegama, Gipuzkoa). Kantu oso ezaguna bilakatu zen eskoletan.

Astoa ikusi nuen
betaurrekoekin
buruan txapela ta
gabardinarekin
ile luzea eta
bigotearekin
hizketan egon nintzen
atzo berarekin.

